

**FRANTZISKO AITA SANTUAREN MEZUA**  
**2024KO MISIOEN XCVIII. MUNDU JARDUNALDIRAKO**

2024ko urriaren 20a

**Zoazte, bada, bidegurutzeetara, eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak** (ik. Mt 22, 9).

Senide maiteok:

Aurtengo Misioen Mundu Jardunaldirako, ezteien parabola ebanjelikoa hartu dut hizpide (ik. Mt 22, 1-14). Parabola horretan, gonbidatuek ezteietara joateko gonbitari uko egin ziotenean, hau esan zien kontakizunaren protagonista den erregeak bere morroiei: «Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak» (Mt 22, 9). Gako hitz horiek parabolaren eta Jesusen bizitzaren testuinguruan kokatuz eta haren esanahiari buruz hausnartuz gero, ebanjelizazioaren alderdi garrantzitsu batzuk azpimarratu ditzakegu. Alderdi horiek gaur-gaurkoak dira Kristoren ikasle-misiolari garenontzat, sinodo-erako ibilbidearen azken fase honetan, «Elkartasuna, partaidetza, misioa» lematzat hartuta, Eliza bere lehentasunezko konpromisorantz bultzatzea baitugu helburu, hau da, ebanjelioaren berri ematea, gaur egungo munduan.

1. «Zoazte eta gonbidatu!». Horixe da misioa, joatea eta Jaunaren ezteietara gonbidatzea.

Erregeak morroiei emaniko aginduan, misioaren muina adierazten duten bi aditzak daude: *joatea* eta *gonbidatzea* edo, zentzu berarekin, *deitzea*.

Lehen aditzari dagokionez, gogoratu behar da lehendik ere bazirela erregearen mezua gonbidatuei helaraztera bidalitako morroiak (ik. Mt 22, 3-4). Horrek esan nahi du gizateria osoarengana nekaezin joatea dela misioaren funtsa, Jainkoa bilatu, eta harekin bat egin dezan gonbidatzeko. Nekaezin, alajaina! Jainkoa, maitasunean handia eta errukian aberatsa, gizaki oroarengana hurbiltzen da beti, eta bere Erreinuko zorionarekin bat egin dezan dei egiten dio, ordainetan indiferentzia eta ukazioa jaso arren. Era berean, Jesu Kristo, artzain ona eta Aitak mundura bidalia, Israelgo herrian galdutako ardiak bila ibili zen, eta harago joan nahi izan zuen beti, urrunen zeuden ardienganaino ere iristeko (ik. Jn 10,16). Hark ere «Zoazte!» esan zien bere ikasleei, bai piztu aurretik bai piztu ondoren, misio hura beren egin zezaten haiek ere (Lk 10,3; Mk 16,15). Hori horrela izanik, Elizak ere muga guztietatik harago aurrera egingo du, behin eta berriz, nekaezin, zailtasunen eta oztopoen aurrean etsi gabe, Jaunarengandik jasotako misio hori zintzo betetzeko.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet misiolariari, Kristoren deiari erantzunez, dena atzean utzita beren aberritik urrun joan baitira, Berri Ona helarazteko oraindik ezagutu ez duen edo ezagutu berri duen orori. Senide maiteok, Jesusek bere ikasleen esku utzi zuen *ad gentes* misioaren konpromisoa argi erakusten duzue, gorputz eta arima aritzen baitzarete: «Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle» (Mt 28,19). Jarraitu dezagun, beraz, Jainkoari otoitz egiten eta eskerrak ematen, ugari izan daitezen ebanjelizazio-lanetan Lurreko azken muturreraino joango diren misiolari-bokazio berriak.

Alabaina, ez dezagun ahaztu kristau orok jaso dugula misio unibertsal honetan parte hartzeko deia, gauden lekuan gaudela, gure lekukotza ebanjelikoa emanez, Eliza osoa bere Jaun eta Maisuarekin etengabe joan dadin gaurko munduko *bidegurutzetara*. Bai, «Gaur egun, Elizak bestelako drama bat bizi du: Jesusek atea jotzen jarraitzen du, baina barruko aldetik, ateratzen utz diezaiogun! Askotan, Jaunari irteten uzten ez dion Eliza [...] bihurtzen da, Jauna *berea* balu bezala, nahiz eta Hura misioa betetzera etorri den eta misiolari nahi gaituen» (*Frantzisko Aita Santuaren hitzaldida, Laikoen, familiaren eta biziaren Dikasterioak antolatutako kongresuko parte-hartzaileei, 2023ko otsailaren 18an*). Gu guztiok, bataiatuok, presta gaitezen berriro ere misioa geure egiteko, norberaren bizi-baldintzen arabera, misio-mugimenduari ekiteko, kristautasunaren hastapenetan bezala!

Bigarren aditzari dagokionez eta parabolako erregeak morroiei emaniko aginduari berriro helduz, *deitzea* edo, zehatz esanda, *gonbidatzea* ezin da bereizi joatetik: «Zatozte ezteietara» (*Mt 22,4*). Eta horrek Jainkoak emandako misioaren beste alderdi garrantzitsu bat iradokitzen du. Imajina dezakegun bezala, morroi edo mezulari horiek luzamendutan ibili gabe transmititzen zuten subiranoaren gonbidapena, baina errespetu eta adeitasun handiz. Era berean, Ebanjelioa izaki ororenganaino eraman behar duen misio horrek bere egin behar du ezagutarazi nahi duen Haren estiloa. Ikasle-misiolariek pozarren, eskuzabaltasunez eta onberatasunez aldarrikatzen diote munduari «Jesukristoren heriotzan eta piztueran islaturiko Jainkoaren maitasun salbatzailea» (*Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa, 36), Espiritu Santuaren ondorioz (ik. *Ga 5, 22*), bortxarik, hertsapenik edo proselitismorik gabe, eta beti hurbiltasunez, errukiz eta samurtasunez, Jainkoaren izateko eta jarduteko moduaren ispilu.

## 2. Ezteietara. Kristoren eta Elizaren misioaren ikuspegi eskatologikoa eta eukaristikoa

Parabolan, semearen ezteietara gonbita egiteko eskatzen die erregeak morroiei. Eztei edo oturuntza horrek badu alderdi eskatologiko bat, Jainkoaren Erreinuko azken salbazioaren irudia baita, Jesusen, Mesiasen, Jainkoaren Semearen etorreraren bidez lortua, bizitza oparo eman ziguna (ik. *Jn 10,10*) eta «jaki gozoz, [...] ardo zaharrez» beteriko mahaien bidez irudikatua, Jainkoak «heriotza behin betiko galduko duen» unean bezala (*Is 25,6-8*).

Izan ere, bere predikazioaren hasieran aitortu zuenez, garaien betetasuna da Kristoren misioa: «Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza» (*Mk 1,15*). Eta misio horri berari jarraitzeko deia dute Jaunaren ikasleek. Gogora dezagun Vatikanoko II. Kontzilioaren irakaskuntza, Elizaren misiolari-konpromisoaren izaera eskatologikoari buruzkoa: «Misio-jardueraren denbora Jaunaren lehen eta bigarren etorreren artekoa da [...] Beraz, beharrezkoa da Ebanjelioa jende guztiari iragartzea, Jauna etorri baino lehen» (*Ad gentes* dekretua 9.).

Jakina da lehen kristauen misiolari-grinaren dimentsio eskatologikoa handia zela. Ebanjelioaren berri emateko premia sentitzen zuten. Gaur ere garrantzitsua da ikuspegi hori gogoan izatea, lagungarri baitzaigu ebanjelizatzeke, Jauna hurbil dagoela dakienaren poztasunarekin eta helmuga

jakin baterantz doanaren itxaropenarekin, han elkartuko baikara guztiok Kristorekin, Jainkoaren Erreinuko ezteietan. Hala, bada, munduak kontsumismoaren, banakoon ongizate berekoaren, metaketaren eta indibidualismoaren *ezteiak* eskaintzen dizkigun bitartean, Ebanjelioak Jainkoaren ezteietara dei egiten digu, Jainkoarekin eta besteekin bat egin dezagun, gozamina, partekatzea, justizia eta senidetasuna nagusi diren leku horretan.

Bizitzaren betetze edo Kristoren dohain horren aurrerapena da Eukaristia, Elizak Jaunaren aginduz eta oroimenez egiten duen ospakizuna. Ebanjelizazio-misioaren bidez mundu guztiarengana helarazten dugun eztei eskatologikoetarako gonbidapenak, izan ere, lotura estua du eukaristiaren mahairako gonbidapenarekin, Jaunak bere Hitzarekin eta bere Gorputz eta Odolarekin elikatzen baikaitu han. Benedikto XVI.a aita santuaren hitzetan, «Eukaristi ospakizun bakoitzean egiten dugu, sakramentuen bidez, Jainkoaren Herriaren batzar eskatologiko bat. Eukaristiako ezteiak, guretzat, profetek iragarritako azken ezteien benetako aurrerapen bat dira (ik. *Is* 25,6-9), Itun Berrian «Bildotsaren ezteiak» izenez aipatzen diren horiena (*Ap* 19,7-9), alaitasunez ospatu behar baitira santuekin bat eginik» (*Sacramentum Caritatis* Sinodo-ondorengo Aholku-hitz apostolikoa, 31).

Horregatik, are intentsitate handiagoz bizi behar dugu Eukaristia bakoitza, bere dimentsio guztietan, eskatologikoan eta misiolarian, batez ere. Hori dela eta, berriro diot: «Ezin gara eukaristiako mahaira hurbildu Jainkoaren bihotzetik abiatuta gizon guztiengana iristen den misioaren mugimendu horrek eraman gaitzan utzi gabe» (*Ibid.* 84). Eukaristia berritzea ere funtsezkoa izango da fededun bakoitzaren misiolari-espirtua pizteko. Tokiko Eliza asko modu goresgarrian aritu dira zeregin horretan, Covid osteko aldian. Horregatik, meza bakoitzean, fede eta bihotzaren bultzada handiagoz esan beharko genuke: «Hil eta piztu zarela, Jauna, Zu berriz etorri arte hau dugu, hau, berri ona!».

Ikuspegi horretatik, 2025eko Jubileurako prestatze aldera otoitzari eskainitako urte honetan, guztiok gonbidatu nahi zaituztet, Elizaren ebanjelizazio-misioaren aldeko mezan eta otoitzean parte hartzea areagotu dezazuen. Izan ere, Salbatzailearen hitzari men eginez, ospakizun eukaristiko eta liturgiko bakoitzean etengabe goratzen du Jainkoa, *aitagurea* otoitz egitean «etor bedi zure erreinua» esanez. Hala, eguneroko otoitzak eta, bereziki, Eukaristiak itxaropenaren erromes-misiolari bihurtzen gaituzte, Jainkoarengan amaierarik gabeko bizitzarako bidean, Jaunak bere seme-alaba guztiontzat prestatutako ezteietako oturuntzarako bidean.

### *3. Guztiak. Kristoren eta Elizaren dizipuluen misio unibertsala, erabat sinodo-erakoa eta misiolaria*

Hirugarren eta azken gogoetan, erregearen gonbidapenaren hartzailleak ekarri nahi ditut gogora: «guztiak», alegia. Azpimarratu dudan bezala, «misioaren muinean dago *guztiak* hori, inor baztertze ez hori. Guztiak. Izan ere, gure misioa Kristoren Bihotzetik dator erabat, guztiak Beregana erakartzen baititu» (*Frantzisko Aita Santuaren hitzaldia, Aita Santuaren Misio Egintzen Batzar Nagusian parte hartu zutenei 2023ko ekainaren 3an*). Gaur egun ere, mundua zatiketaren eta gatazken ondorioz urratuta egon arren, Kristoren Ebanjelioa ahots gozo eta indartsua da, eta

pertsonei dei egiten die elkar daitezen, elkar senidetzat har dezaten eta, desberdintasunak desberdintasun, harmoniaz goza dezaten, Jainkoak «gizaki guztiak salbatu eta egia ezagutzera hel daitezen nahi baitu» (1 Tm 2, 4). Horregatik, ez dezagun ahaztu gure misiolari-jardueretan, guztioi Ebanjelioa jakinaraztera bidaliak garela, eta «ez betebeharrak berri bat ezartzen duenak bezala, baizik eta poz bat partekatzen duenak bezala, etorkizun eder bat seinalatzen duenak bezala, oturuntza desiragarri bat eskaintzen duenak bezala» (*Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa, 14).

Kristoren ikasle-misiolariak beti eramaten dute bihotzean edozein gizarte- edo moral-izaeratako pertsona guztiekiko kezka. Ezteien parabolak dioenez, erregearen gomendioari jarraituz, morroiek «aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto» (Mt 22, 10). Eta, gainera, «behartsu, elbarri, itsu eta herrenak» (Lk 14, 21), hau da, gizarteko azkenak eta baztertuak dira erregearen gonbidatu bereziak. Hala, Jainkoak bere Semearentzat prestatu duen ezteietako oturuntza hori irekia da guztiontzat eta betiko, gutako bakoitzarenganako Haren maitasuna handia eta baldintzarik gabea baita. «Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarria eman baitzion, harengan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan» (Jn 3, 16). Edozein gizon eta emakume, guztiok gonbidatu gaitu jainkoak bere grazian parte har dezagun, Jainkoak eraldatu eta salbatu egiten baitu. Nahikoa da jainkozko eta doako dohain horri «bai» esatea, *eztei-jantzi* bat balitz bezala soinean jartzea, geure eginez eta eralda gaitzan utziz (ik. Mt 22, 12).

Misio unibertsalak guztion konpromisoa eskatzen du. Horregatik, beharrezkoa da Ebanjelioaren zerbitzura dagoen Eliza guztiz sinodo-erako eta misiolari bateranzko bidean aurrera egitea. Sinodalitatea, berez, misiolaria da, eta alderantziz, misioa beti sinodo-erakoa da. Beraz, misiolarien arteko lankidetzak estua are premiazkoagoa eta beharrezkoagoa da gaur egun, bai Eliza unibertsalean bai Eliza partikularretan. Hala, Vatikanoko II. Kontzilioak eta nire aurrekoek hasiriko ildoari jarraituz, munduko elizbarruti guztiei gomendatzen diet Aita Santuaren Misio Egintzen zerbitzura jar daitezen, hau da, «haurtzarotik hasita, katolikoengan benetako zentzu unibertsala eta misiolaria piztu dezaten eta, bakoitzak behar duenaren arabera, misio guztien onerako behar diren laguntzak modu eraginkorrean jaso ditzaten» (*Ad gentes* dekretua, 38). Hori dela eta, Misioen Mundu Egunean tokiko eliza guztietan eginiko bilketa oro bideratuko da Elkartasun Funts Unibertsalera, gero Fedearen Hedapenerako Aita Santuaren Egintzak banatu dezan, Aita Santuaren izenean, Elizaren misio guztien beharrak asetzeko. Eska diezaiogun Jaunari Eliza sinodo-erakoagoa eta misiolariagoa izaten lagundu diezagula (ik. *Frantzisko Aita Santuaren homilia, Gotzainen Sinodoaren Ohiko Batzar Orokorren amaieran, 2023ko urriaren 29a*).

Azkenik, begira diezaiogun Mariari, hark lortu baitzuen lehen miraria Jesusengandik, non izango eta eztei-festa batean hain justu, Galileako Kananen (ik. Jn 2, 1-12). Jainkoak ardo berriaren oparotasuna eskaini zien ezkonberriei eta haien gonbidatu guztiei, Jainkoa denboraren amaierarako guztiontzat prestatzen ari den ezteietako oturuntzaren aurrekari. Eska diezaiogun hari ere, beraz, ama gisa esku har dezan, Kristoren ikasle guztion ebanjelizazio-misioaren alde. Gure Amaren pozarekin eta arretarekin, haren samurtasunaren eta afektuaren indarrarekin (ik. *Evangelii Gaudium* Aholku-hitz apostolikoa, 288), goazen eta eraman dezagun guztiengana gure Errege eta Salbatzailearen gonbidapena. Santa Maria, ebanjelizazioaren Izar zaren horrek, egizu otoitz gure

alde!

Erromako San Joan Laterangoan. 2024ko urtarrilaren 25a, San Pauloren konbertsioaren jaia.

FRANTZISKO